

## Geroari begira

Hamar urteren buruan, Euskal kultur erakundeak bere izaitea finkatu du, euskararen eta euskal kulturaren alorretan. Hamar urtez, hainbat eta hainbat ekintza sustengatu eta obratu ditu, ainitz egitasmoentzat, arartekolaritzaren lana eramanez. Horiek oro egundainokotik egundainokora, euskal kulturaren egile suharrei esker.

Gaur egun, biharko euskal kulturaz gogoetatzeko eta lan egiteko astia hartu behar dugu, gizarte zibilarekin elkarlanean eta lurralde mailako antolaketa babesean. Duela guti egin gogoetaldia harrointzat hartuz, eta jende desberdinekin mintzatu ondoan, Euskal kultur erakundea norabide batzuen aztertzen ari da. Hor aipa genezake kultura alorrean ari direnen profesionalizatzea, euskal kulturaren hirian sarraraztea, arartekotasunaren azkartzea, bertzeak bertze teknologia berrietan, eta horiei datzikola, euskararen eta ondarearen aldeko ekintzen fermuki suspertzea, haurren mundua beti gogoan ukanez. Horien guzian abian ezartzeko, ekintzen lurraldetasuna bilatu behar dugu. Kulturaren aldeko herri-elkargoa sustatzeko da, osagarritasun eta elkartasuna edirenez, lparaldean egiazko kultura politika baten finkatzeko gisan.

## Prospective

Après dix années d'expérience, l'Institut culturel basque a globalement acquis une légitimité certaine, tant de la part des acteurs culturels que des différents élus ou administrations.

Il doit maintenant prendre le temps de penser et d'agir pour la culture basque de demain, en étroite partenariat avec la société civile, et dans un esprit d'aménagement culturel à l'échelle du territoire Pays basque.

En tenant compte des grands axes retenus lors du séminaire "Quelle culture basque pour le XXIème siècle ?" et des différentes personnes rencontrées pour aborder ce thème, l'Institut culturel basque est en train de définir quelques grandes lignes d'action qui pourraient se résumer ainsi : la professionnalisation des acteurs culturels en privilégiant le binôme Formation-Création, la présence de la culture basque dans les villes, le renforcement de la médiation culturelle et du partenariat, entres autres via les Nouvelles Technologies d'Information et de Communication, et enfin, un soutien accru aux actions en faveur de la langue basque et du patrimoine.

Tout ceci nécessite une démarche globale de politiques culturelles qui doivent être intégrées aux politiques économiques et sociales développées dans chaque collectivité ou institution.

Pantxoa ETCHEGOIN  
Zuzendaria/Directeur

## Euskal etxeen ezagutza Baigorriin barna

## Redécouvrir les maisons basques



Baigorri Etxezaharrea

Euskal Herriko arkitektura luzaz euskal etxe tradizionalari mugatua izan da (zurbesoak, teilatu disimetrikoa, kisuz xuritu paretak, zureria gorria) eta, denborarekin, hau eredu edo modelo bakarra bilakatu da.

Urrunago joan nahiz, eta euskal etxeen egiazko ainitzasuna ezagutzeko asmoz, alor desberdinetako jendeak biltzen dituen ikertalde bat sortu da Euskal kultur erakundearen inguruan. Talde horretan, arte historialariek, arkitektoek, arkeologoen eta etnologoen parte hartzen dute. Helburutzat dauka herri honen arkitektura sakonago eta begi berri batez begiratzea. Emeki-emeki, xede batzuek finkatu ditu. Hala nola, Baigorriko etxeen inbentario diakronikoaren egiten hastea...

Helburu huntara heltzeko, taldeko bi presunek etxeen aitzinaldeen aztertzeko fitxa bat osatu dute. Ondotik, 1998an, taldeko 5 presuna etxe guzien aitzinaldeak aztertzeko hasi dira, auzoz auzo. Parada honetaz baliatu nahi genuke Urdoze, Bastida, Eiheralde, Otiokorene, Germita, Belexi eta Leizparzeko auzotegietako jendeen eskertzeko, ikertzaileeri egin dieten ongi etorriarentzat. Gaur egun, zertan gaude ? Ehun bat etxe ikertuak izan dira...

Etxe bakotx, Euskal kultur erakundeak txosten bat badu, deskripzio fitxa, planoak eta argazkiak biltzen dituena.

Mementukotz inbentarioa gelditua da, baina jadanik parekotasunak, desberdintasunak agertzen zaizkigu, bai eta berezitasunak ere (etxeen apainduran bereziki), auzotegien eta garaien arabera. Hemendik goiti, ikusi beharko dugu lan hori nola balora publiko zabal bati ezagutarazteko, bai eta ikasleen esku uzteko ere.

Bertzalde, ikerketa osatu behar liteke etxeen barne antolaketa aztertuz, beren ingurumen historiko eta sozio-ekonomikoan kokatuz. Etxeak mintzo zaizkigu gaur-egun direnaz eta atzo izan zirenaz... Guri da ate batzuen zabaltzea, etxeen izanaren berri ukaitzeko eta hortik atera genezakeen jakintza hori sorkuntza iturri bilakartzeko.

Le patrimoine architectural du Pays Basque a longtemps été réduit à l'image de la maison basque traditionnelle (colombages, toit dissymétrique, murs blanchis à la chaux, couleur rouge sang des menuiseries) devenue au fil des temps le modèle unique.

Soucieux d'aller au delà de ces stéréotypes et désireux de connaître la véritable diversité des maisons basques, un groupe d'étude pluridisciplinaire s'est constitué en 1995 autour de l'Institut culturel basque. Il rassemble des personnes de spécialités différentes : historiens d'art, architectes, archéologues, ethnologues. Son but est de reconsidérer le patrimoine architectural de notre pays avec une plus grande attention, un regard nouveau. Il se fixe progressivement une série d'objectifs parmi lesquels celui de démarrer un inventaire diachronique des maisons de Baigorri .

Une grille de lecture des façades de maisons est élaborée à cet effet par deux personnes du groupe. Puis une équipe composée de 5 personnes commence en 1998, quartier par quartier, à examiner toutes les façades de maisons. Nous tenons ici à remercier les habitants des quartiers de Urdoze, Bastida, Eiheralde, Otiokorene, Germita, Belexi et Leispars pour l'excellent accueil réservé à ces enquêteurs.

Qu'en est-il aujourd'hui ? Une centaine de maisons ont été à ce jour inventoriées... L'Institut culturel basque possède un dossier pour chacune d'entre elles avec fiche descriptive, plans et photos.

L'inventaire (qui permet déjà d'apprécier certaines similitudes, différences ou particularités ornementales suivant les quartiers et les époques) est momentanément stoppé. Il s'agit maintenant de voir comment cette première approche du patrimoine architectural peut être exploitée pour être rendue accessible au plus grand nombre, notamment au public scolaire. Il s'agit également de la compléter par une étude de l'organisation intérieure des maisons, de la resituer dans un contexte historique, socioéconomique. Les maisons nous parlent de ce qu'elles sont et de ce qu'elles ont été... A nous de les interroger encore plus en profondeur... A nous de les revisiter afin que la connaissance que nous en tirons soit source de création architecturale...



## Le souffle créateur des artistes basques

**E**n Pays basque, l'art est longtemps resté lié aux seules représentations religieuses et à une tradition qui ne souffrait guère la remise en cause. Mais à la fin des années 50 se produit une véritable révolution

plastique et esthétique qui sort l'art basque de l'im-

passé dans laquelle il se trouvait.

Grâce à Jorge Oteiza, sculpteur et théoricien de l'art, et aux artistes de sa génération, rien n'est plus comme avant. "Ils ont fait évoluer tous les domaines qui relèvent de l'art", explique Jean-François Larralde,

conservateur du Musée de Guéthary. "L'intérêt de quelqu'un comme Oteiza, c'est qu'à partir du bilan qu'il arrive à faire de sa formation et de ce qu'il reçoit comme influences extérieures, il fait le point et applique ce bilan au Pays basque. De cette synthèse naît quelque chose d'original qui fait avancer le problème artistique au Pays basque. C'est ce qui s'est produit aussi avec Txillida." Les deux sculpteurs sont d'ailleurs reconnus internationalement dès la fin des années 50. Puis, ce sont les années de repli volontaire. Les artistes basques refusent les propositions faites à l'extérieur pour vivre et créer au contact de leur terre, avec ceux qui les entourent.

## Inventer son propre langage

Oteiza, Txillida... Mais aussi Mendiburu, Basterretxea, Goenaga, Zumeta, Nagel, Ibarrola : ces artistes, qui vont marquer l'histoire de l'art contemporain basque, sont tous originaires des provinces du sud. Pour Jean-François Larralde, deux facteurs expliquent l'émergence de ce phénomène en Gipuzkoa et en Biscaye : "D'une part, la création de la faculté des Beaux-arts de Bilbao a permis tout de suite une formation de très haut niveau. Ces artistes étaient formés et informés. Ensuite, il y a une très vieille tradition, dans ces deux provinces, de bourses pour des voyages d'études à l'étranger. Ils se sont frottés à d'autres expériences, d'autres façons de pratiquer l'art." Ceux-là ont donc ouvert la voie, en ne cessant de poursuivre leur quête. D'autres suivent aujourd'hui ce chemin et s'efforcent d'ouvrir de nouvelles portes sur la création. Pour Jean-François Larralde, "l'essentiel n'est pas tant de suivre leur voie que ce qu'ils ont apporté d'enrichissement et de possibilités données à l'artiste de se créer un langage personnel."

## L'exil et la quête

Jesus Echevarria fait partie des grands sculpteurs basques de ce temps. Originaire de la province d'Alava, il s'est installé à Cambo il y a plus de quarante ans. Si son éveil artistique est d'abord passé par la musique, "l'art des arts" selon ses propres mots, sa vocation de sculpteur s'est matérialisée dans cet exil imposé par la dictature franquiste. "Il y a eu l'exil, il y a eu ici une vie très difficile", explique Maialen Echevarria, son épouse. "Jesus est quelqu'un qui vibre pour cette question basque, il lui a donné toute sa jeunesse et il n'a jamais eu peur de s'engager. L'expression artistique chez lui est certainement nourrie de toute cette histoire, mais elle est comme transcendée. Et presque toujours il atteint alors les origines, ou les grands mythes." Puisant son inspiration dans la littérature ("L'épopée du Mio Cid"), dans la musique ("Le sacre du printemps") ou dans l'histoire ("Gernika en flammes"), Jesus Echevarria garde de l'enfance une fascination pour l'art roman et se projette, avec la jeunesse de ses 84 ans, dans un rêve d'artiste toujours en quête : "Mon rêve, c'est l'espace sacré et sculpter la lumière. C'est pourquoi je suis admiratif devant



Jesus Echevarria

l'art roman : parce qu'ils savaient conduire la lumière dans les ténèbres là où ils voulaient. Quand on rentre dans une chapelle romane, on trouve la paix tout de suite. Pour moi, c'est l'aboutissement."

## L'engagement de l'artiste

Mais le chemin est difficile pour celui qui veut vivre de son art. Mikel Dalbret en sait quelque chose, lui qui a tout quitté il y a quinze ans - Paris, une carrière, une "clientèle" qui commençait à s'intéresser à sa peinture - pour venir vivre son art en Pays basque. "Par la découverte du pays, des gens, un processus s'est enclenché de réappropriation de mes racines. Et ce processus s'est accéléré lorsque j'ai décidé d'apprendre la langue basque. Cela a eu pour conséquence de changer ma vision du monde, et mon art s'en est trouvé modifié. Je me suis trouvé en rupture quasi-



totale, confronté à une aventure humaine originale mais avec pour contre-partie une grande solitude." En recherche permanente sur la forme, inspiré par les thèmes fondateurs de la culture basque, Mikel Dalbret a fait un choix de vie, d'engagement auquel il donne un sens : "Les artistes basques ont peut-être en commun ce besoin, au travers de l'art, d'affirmer une présence au sein du concert des nations. Dire qu'il y a une peinture basque n'est pas le but recherché, mais cela peut contribuer à la construction qui se fait actuellement. Le mode artistique n'est pas la façon la plus idiote de construire le Pays basque."

## Créer un élan

Au Pays basque nord, peu touché par la révolution esthétique créée par la génération Oteiza, l'art basque a bien des difficultés à se défaire de ce qui semble être la seule référence possible : les œuvres de Ramiro Arrue. Convaincus que l'art doit exister autrement, des artistes se regroupent, des expériences voient le jour, en dehors des centres urbains : à Espelette, l'association Begi Argi propose chaque année, depuis dix ans, une exposition regroupant peintres amateurs et professionnels. "Nous souhaitons inviter aussi les amateurs parce que la poésie n'appartient pas qu'aux professionnels, elle appartient à tout le monde," explique Roger Bravard, maître

L'art basque a de multiples visages. Tous les visages possibles de la création : des sculptures d'inspiration religieuse de Beobide aux expérimentations sur le vide d'Oteiza ; des paysages bucoliques de Ramiro Arrue aux représentations symboliques de Mikel Dalbret ; des fulgurances créatives du collectif Uztaro aux puissantes sculptures de Jesus Echevarria... Autant de sensibilités exprimées, autant d'artistes habités par leur relation à la terre, à l'air, et à la lumière de ce pays. Des artistes qui, tous, souhaitent que l'art rencontre le public. Et qui, pour cela, multiplient les expériences originales.

d'œuvre avec Claire Boustingorry, son épouse, de cette exposition. "Et en confrontant les amateurs aux professionnels, nous souhaitons créer une espèce d'élan." Et c'est une véritable dynamique qui voit le jour autour de Begi Argi dont l'objectif a toujours été de favoriser une expression artistique issue du Pays basque : "On ne cultive pas suffisamment cette question ici, au Pays basque nord", regrette Roger Bravard. "Nous, nous avons essayé de réunir les gens. On a ouvert un atelier ici-même, chez nous, et là il y a un climat vivant, créatif, très intéressant. Nous avons créé un milieu artistique dans le coin."

## L'art à la rencontre du public


Autre expérience, conduite pour la première fois l'an passé à Saint-Jean-Pied-de-Port : la Biennale des arts plastiques de Navarre. Là encore, l'idée de départ est de provoquer la rencontre entre le public et l'art contemporain. "Mon idée était de donner aux artistes basques les moyens de se faire reconnaître et de se rencontrer", explique Alain Bougis, initiateur du projet. "Mais au lieu de faire venir les gens pour une exposition dans un lieu bien déterminé, j'ai préféré investir Garazi, en occupant aussi bien les lieux publics, à l'extérieur, que les vitrines des boutiques. C'était une façon d'obliger les gens, sans qu'ils s'en rendent compte, à venir à la rencontre de l'art contemporain." 23 artistes présents, tous professionnels, venus du Pays basque nord et de Navarre. Et une fréquentation d'environ 5 000 personnes sur trois jours : le bilan de cette première édition encourage les organisateurs à renouveler l'expérience en 2001. Avec des objectifs plus ambitieux : une quarantaine d'artistes basques invités, un jury de sélection, et un invité de marque extérieur au pays. "De la même façon que je veux que les artistes basques se fassent connaître et reconnaître, je veux aussi que l'on montre une autre façon de travailler, une autre vision de l'art", tient à souligner Alain Bougis.

## Le nécessaire soutien aux artistes

Un foisonnement culturel, des artistes nombreux, talentueux, une qualité de travail qui ne cesse de progresser. Et dans le même temps, une réelle difficulté pour ces artistes à exister et à s'épanouir. L'insuffisance d'infrastructures de formation, le manque de lieux d'exposition, l'absence de politique artistique et d'aides aux artistes font que ceux-ci sont freinés dans leurs possibilités de création. "Ramiro Arrue est mort dans la misère", rappelle Jean-François Larralde. "Aujourd'hui, ses œuvres sont devenues des placements financiers. Il ne devrait pas y avoir de transactions financières sur les artistes morts, parce que cela ne profite pas aux artistes vivants. Si Ramiro Arrue était vivant aujourd'hui, il connaîtrait le même sort."

Pour que l'histoire ne se répète pas, sachons ouvrir les yeux sur l'art, celui dont Jean Dubuffet disait "qu'il est toujours là où on ne l'attend pas, là où personne ne pense à lui ni ne prononce son nom". Et qu'il nous étonne, qu'il nous dérange ou nous enchante, sachons nous émerveiller.





## UZTARO

**Etengabeko  
kreatibitate  
baten esperientzia**

Uztaro artista taldea 1989an sortu zen Maulen, Ühaitza elkartearen barnean. Bi urte berantago, talde autonomo bihurturik, Uztaro hasi zen Mendikotan lan egiten. Hamaika urtez, taldeak arte-praktikari eskaini ekarpenak oso garrantzitsuak izan dira. Gaur egun, Gonzalo Etxebarriak adierazten digunez, artista talde xiberotarrak hiru ardatzen lantzea hautatu du.

### Sarearen garrantzia

Hezkuntza nazionalarekin ari gara plan bat muntatzen. Kostaldeko eskolekin, serigrafia lan bat egiten dugu, urtean zehar. Irakasleak ikastaro baten egitera jin dira lehenik, aste batez, eta gero gu joaten gara kostalderat, ikasleekin lan berezi baten egitera. Esperientzia hori eramaiten dugu Georges Lafeu arte plastikoetarako aholkulari pedagogikoa-ren laguntzarekin : gure lana ikusi zuen eta interesatu zitzaion gurekin lan egitea.

Gero, aurten daukagun beste proiektu inportantea "Matalaz" da. Antzerki mota bat izanen da, ikusmolde garaikide batez muntatua, Mixel Etxekopar musikariaren, Xiberoko aktoreen eta Nicole Lougarot dantzariaren parte hartzearekin, besteak beste. Eta guk apaindura egiten dugu. Maiatzean emana izanen da normalki Urdiñarben, eta ekainean Donostiako Kurtsaalen. Pozten gara halako jendearekin lan egiteaz estetika mailan sentsibilitate bera baitugu. Baditugu tresnak ere eta festibaletan erabiltzen ditugu, gehienbat antzerki eta kaleko festibaletan, Euskal Herrian noski, bai eta Frantzia eta Espainian ere. Halako gertakarietan, jendearekin mintzatzeko aukera dugu : hori da gure helburua, elgar ezagutzea, jendearekin harremanetan sartzea. Indibidualki, erakusketak egiten ditugu, baina talde bezala, interesatzen zaigu publiko zabal bat, mota guzietako jendea hunkitzea.

### Elkarlana eta harremanak

Izurako Haize Berrik eraman esperientzian parte hartzen dugu eta izigarri aberatsa da guretzat. Uste dut lan biziki inportantea egiten ari direla. Halako herri batean, halako esperientzia bat egitea (zeren hegoaldean ez baita halakorik), halako obra garaikideak eskaintzea, izigarri lan sakona da. Pretentzionerik gabe ari dira emeki emeki jendea hunkitzen, eta jendearen ikuspegia zabaltzen. Itsasuko Errobiko festibalean parte hartu genuen iaz, Abbadiarekin harremanetan sartzen gara. Elkarlana egitea puntualki edo beste manera batez, oso inportantea da, ez isolaturik izateko. Hegoaldearekin ere harremanak ditugu. Zumaian harremanetan sartu gara Zumaitz artista elkarte batekin eta horiekin ere lan egiten dugu : Maulerat jin ziren erakusketa bat muntatzera, eta gu harat joan ginen. Iruñean, Durangon eta Bilbon izan ginen ere. Estetika mailan, bada aitzinamendu izigarria. Problema da esperientziak bertikalak direla. Artea medio bezala hartua da. Ez da esperientzia zabalik, kolektiborik, baina gizarteko fenomeno bat da. Iparraldean, aitzinamendua biziki inportantea izan da hamar urte hauetan. Gero eta kalitate handiagoko lanak ikusten dira, proposamen anitz, aberasgarriak, eta jendearengandik ere ikusmolde ezberdina.

### Hausnarketa eta praktika

Praktika mailan asko azkartu gara. Baina azken denbora hauetan, gauzak egiten ditugu momentuan, presaka, eta hausnarketa sakonago bat egin behar genuke. Batzutan zaila da zerren talde batean beti orotarik baita. Baina jakin behar dugu zergatik egiten ditugun gauzak, norat eramaiten. Bestalde, guretzat inportantea litzateke aldizkari bat argitaratzea, ipar Euskal Herriko arte munduan zer gertatzen den adierazteko, beste taldeekilako harremanak ukaiten, arte mailan zer egiten den jakinarazteko. Badakigu beste kultur arlo guziki biziki inportanteak direla, baina ez dugu artea ahantzi behar.

# Haize diote

**Daniel ARBELETCHÉ**


Haize Berri kultur etxeko lehendakaria

### Noiz hasi zineten arte erakusketen antolatzen izuran ?

Hasi ginen duela hamabost urte. Orduan ez zen toki egokirik artistentzat, bereziki barnekaldean. Bestalde, ohartzen ginen margolari eta eskultore anitz bazela. Beraz, entseiatu ginen leku baten eraikitzea obrak erakutsi ditzaten. Ideia zen gela baten eskaintzea nahi zuenari, irizpiderik finkatu gabe. Gero, emeki-emeki konturatu ginen denetarik bazela, kalitate eta estilo aldetik, eta orduan, arte garaikideari buruz bihurtu ginen. Duela lau urte, Jean-François Larralde, Getariako erakustokiko zuzendaria ezagutu genuen eta berak ireki zuen gure erakusketa guk ezagutzen ez genituen artistei.

### Gela bat eskaintzea aski ote zen artea publikoarengana joan zedin ?

Gure helburua arte garaikidea baserri munduan biziartzea zen : hitz bezala, izigarri polita zen, baina ez zuen funts handirik udako erakusketa ez bagenuen beste modu batez antolatzen. Orduan, duela hiru urte formula berri bat abiatu genuen : alde batetik, bi artista bakarrik hartu genituen - margolari bat eta zizelkari bat - eta haien obrak gelan erakutsi. Bestetik, Izurako herrian, kanpoan, beste hamar artistek muntadura edo instalazione batzuk egin zituzten. Eta hirugarren gauza : artista bat gomiatu genuen, lekuan berean lan egin zezan. Nahi genuen artistak herriko jendearekin harremanak har ditzan



eta herriko jendeak obra baten egiteak lan frango eskatzen zuela ikus dezan.

### Euskal artistei ematen diezue lehentasuna ?

Bai, emaiten diegu euskal artistei lehentasun bat. Kanpotik jiten diren artistak izigarri interesgarriak dira, baina uste dut gure eginbidea lekuko artistei beren lekua emaiten dela ere. Bistan da idekidura behar dela kanpoari, eta kultura ideki bat egin behar dela, baina ez idekiduraren kultura. Finkatu dugun irizpidea Euskal Herrian bizi diren artisten hautatzea da. Hegoaldeko artistak ekarrarazi ditugu ere, hala nola Zumeta, Juan Luis Goenaga edo Nestor Basterretxea.

### Zer egin behar litzateke artea gehiago hedatzeko barnekaldean ?

Bada lan bat egiteko erakusketaren inguruan eta artistekin jendeak artea ikas eta praktika dezan, jendea artearen gustua emaiten. Urrats inportante bat izan liteke. Gure aldetik, segituko dugu artista bat "erresidentzian" hartzen, baina formula berri bat entseiatu nahi genuke : barnekaldeko herri batzuk laguntzaile gisa hartu nahi genituzke, artistak egiten duen obra Izuratik kanpoko herri batean eraikia izan dadin eta herri hartan geldi dadin. Horrela, iduritzen zaigu lan balios bat egin genezakeela arte mailan Euskal Herri barnekaldean.

## Ce qu'ils en pensent

**Martine PINSOLLE**

Artiste peintre



### La terre basque est-elle source d'inspiration pour vous ?

Le Pays basque n'inspire pas directement ma peinture. Mais disons qu'ici, j'ai retrouvé une qualité de vie, un art de vivre, une tranquillité qui m'ont permis de m'adonner plus librement à mon art. Je vis entourée

par la nature et j'y trouve cette quiétude qui facilite la concentration, indispensable en peinture. Je suis également très sensible à la lumière du Pays basque, lumière que l'on retrouve dans certaines de mes peintures, qu'il s'agisse d'un travail sur le corps humain ou sur la nature morte. Je me sens très en harmonie avec l'air que je respire, l'atmosphère, la lumière et les couleurs qui m'entourent.

### Vous reconnaissez-vous dans l'appellation "artiste basque" ?

Je suis sollicitée en tant qu'artiste basque parce que ce pays m'a donné une forme d'identité. Et même si je ne peins pas des sujets locaux, je me sens très directement liée à la terre sur laquelle je vis et je crée. D'autre part, nous communiquons beaucoup entre artistes, et je me sens très liée à eux. Je définirais l'identité plutôt ici comme une sorte de famille : je me sens artiste basque parce que j'appartiens à cette famille d'artistes qui vivent ici et qui se réclament de cette identité.

### Les arts plastiques ont-ils une place suffisante en Pays basque ?

Il y a tellement longtemps que je peins en Pays basque, que je ne rencontre pas de réelles difficultés pour exposer. Beaucoup d'instances, l'Institut culturel basque notamment, font tout pour nous permettre d'exposer le plus souvent possible. Mais il y a beaucoup d'artistes ici, et des artistes de qualité, et nous nous plaignons tous d'un manque de lieux et de l'insuffisance d'information en direction du grand public. Ici comme ailleurs, on a l'impression de n'intéresser qu'une sorte d'élite, un public averti. Moi, je conçois l'art comme vivant au milieu des gens et je souhaiterais qu'il soit plus largement diffusé. D'autre part, il ne faudrait pas limiter l'art à une certaine tradition : la tradition doit évoluer et se moderniser. Il ne faut pas que l'art en Pays basque soit coupé de l'art qui existe et évolue ailleurs.

### Vous avez eu l'occasion d'exposer à Ostabat, en Pays basque intérieur : que vous a inspiré cette expérience ?

Le public est finalement beaucoup plus proche de nous dans un village comme Ostabat que dans une ville de la côte. Et très varié, puisque le village se trouve sur les chemins de St-Jacques. Ces gens ne venaient pas à la rencontre de la peinture, mais la rencontraient sur leur chemin. Nous sommes nombreux à souhaiter que ces expositions se généralisent, que les lieux se multiplient, afin que nous allions à la rencontre des gens.

- 4 - 21 h - Domintxine / Domezain ("Bil lekia" gela) :** Kantaldia / *Musiques et voix tsiganes* : "Urs Karpatz". Xehetasunak / *Renseignements* : Euskal kultur erakundea : 05 59 93 25 25.
- 5 - Lizarra / Estella (Nafarroa) :** A.E.K. eguna.
- 5 - 17 h - Biarritz (salle "Le colisée" gela) :** "Urs Karpatz" / *Musiques et voix tsiganes*. Xehetasunak / *Renseignements* : Biarritz culture. Tél : 05 59 22 20 21.
- 9 - Donostia / Saint-Sébastien ("Kursaal" entzutokia) :** Musika / *Musique* : Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren kontzertua. Xehetasunak / *Renseignements* : 00 34 943 30 83 32.
- 10 - 21 h - Baiona / Bayonne (Baionako antzokia / Théâtre de Bayonne) :** Dantza / *Danse* : "Ballet Biarritz". Xehetasunak / *Renseignements* : Scène nationale de Bayonne et du Sud Aquitain. Tél : 05 59 55 85 05.
- 10 - 21 h - Sohüta / Cheraute :** Concert "Quartet Slavei". Xehetasunak / *Renseignements* : 05 59 28 44 46 - 05 59 93 25 25
- 11 - 21 h - Donibane-Garazi / Saint-Jean-Pied-de-Port (Eliza / église) :** Kantaldia : "Quartet Slavei" - *Polyphonies féminines bulgares*. Xehetasunak / *Renseignements* : Euskal kultur erakundea : 05 59 93 25 25, et/ou Garazikus. Tél : 05 59 37 06 04.
- 14 - 21 h - Baiona / Bayonne (Baionako antzokia / Théâtre de Bayonne) :** Musika / *Musique* : "Chicago blues festival 2000". Xehetasunak / *Renseignements* : Scène nationale de Bayonne et du Sud Aquitain. Tél : 05 59 55 85 05.
- 16 - 21 h - Biarritz (Casino municipal) :** Musika / *Musique* : *Orchestre national Bordeaux Aquitaine*. Xehetasunak / *Renseignements* : Biarritz culture. Tél : 05 59 22 20 21.
- 17 - 21 h - Baigorri (Château d'Etzauz) :** Musikaldia : "Coppéy & Capuçon". Xehetasunak / *Renseignements* : Garazikus. Tél : 05 59 37 06 04.
- 20 - Donostia / Saint-Sébastien ("Kursaal" entzutokia) :** Musika / *Musique* : "Bach". Xehetasunak / *Renseignements* : 00 34 943 30 83 32.
- 25 - 21 h - Atharratze / Tardets (CEG Jauregui) :** "Pas touche terre" ikusgarria. Compagnie : Vent d'Autan. Xehetasunak / *Renseignements* : Garazikus. Tél : 05 59 37 06 04
- 25 - 19 h - Pau. "Lagunt eta maita" elkartearen besta. Ikusgarria :** Euskal Spiritu-ren dantzariak, kantariak : Pascale Elichondoborde, Magali Zubillaga, Marie-Anne Lerdou, Corinne Larricq. Xehetasunak / *Renseignements* : Claude Serrano. Tél : 05 59 27 46 56.
- 26 - Donibane-Garazi / Saint-Jean-Pied-de-Port :** Antzerkia / *Théâtre en basque* : "Hôtel du fronton", Hiru punttu taldeak emanik. Xehetasunak / *Renseignements* : Garazikus. Tél : 05 59 37 06 04
- 26 - 16 h - Donibane-Lohizune / St-Jean-de-Luz (Salle "Ducontenia" salan) :** Bertso saioa. Andoni Egaña, Jesus Mari Irazu, Xanpun, Amets Arzallus, Sustrai Colina. Xehetasunak / *Renseignements* : Begiraleak. Tel : 05 59 26 20 66.
- 26 - 16 h 30 - Urruña / Urrugne (elizan) :** Kantaldia / *Concert Txomin eta Urbil Artola eta Niko Etxart*.
- 28 - 21 h - Baiona / Bayonne (Baionako antzokia / Théâtre de Bayonne) :** Kantaldia : "The ladies of song". Xehetasunak / *Renseignements* : Scène nationale de Bayonne et du Sud Aquitain. Tél : 05 59 55 85 05.

## ABENDOA - DÉCEMBRE

- 1 - 20 h 30 - Hazparne / Hasparren ("Xuriatea") :** "Mintza" ikusgarria. Xehetasunak / *Renseignements* : Eihartztea. Tél : 05 59 29 43 36
- 2 - 21 h - Baiona / Bayonne (Antzokia / Théâtre de Bayonne) :** Dantza / *Danse* : "Compagnie Ysarca : De sol a lua" (dances espagnoles). Xehetasunak / *Renseignements* : Scène nationale de Bayonne et du Sud Aquitain. Tél : 05 59 55 85 05.
- 5 → 10 - Durango :** Azoka / *Foire au livre et au disque*. Xehetasunak / *Renseignements* : Gerediaga elkarte. Tél : 00 34 946 81 80 66.
- 8 - 20 h - Baiona / Bayonne (Antzokia / Théâtre de Bayonne) :** Haurrendako musika / *Musique pour enfants* : "Léo, Marie et l'orchestre" présenté par l'Orchestre Bayonne Côte Basque. Xehetasunak / *Renseignements* : Scène nationale de Bayonne et du Sud Aquitain. Tél : 05 59 55 85 05.
- 15 - 21 h - Maule / Mauléon ("Andurain jauregia") :** Kontzertu eta etabaida : Txetxeniako "Daimakhkan Aznach" taldea. Xehetasunak / *Renseignements* : Euskal kultur erakundea. Tél : 05 59 93 25 25.
- 15 → 17 - Donostia / Saint-Sébastien ("Kursaal" entzutokia) :** Musika / *Musique* : Gospel musika jaialdia. Xehetasunak / *Renseignements* : 00 34 943 30 83 32.
- 15 - 21 h - Biarritz (salle "Le colisée" gela) :** Dantza / *Danse* : "Ciné danse". Xehetasunak / *Renseignements* : Biarritz culture. Tél : 05 59 22 20 21.
- 16 - 16 h - Baigorri (cinéma Bil etxea) :** conférence sur la Tchéchénie, par A. Grigorian et B. Outtier (CNRS).
- 16 - 20 h - Aldude / Les Aldudes (salle Sanoki sala) :** groupe Dainakhkan-Aznach. Xehetasunak / *Renseignements* : Institut culturel basque 05 59 93 25 25.

## Erakusketa / Exposition :

**Azaroaren 18tik abenduaren 17rat / Crypte de l'église Sainte Eugénie de Biarritz :** Mikel Dalbret margoak / peintures). Xehetasunak / *Renseignements* : Biarritz culture : 05 59 22 20 21.

**1<sup>er</sup> décembre à 20 h :** Soirée "Artearen mintzoa" (chanteurs, danseurs, bertsulari)

## QUESTION A...

▶ **Laurent DARRAIDOU**  
président du Comité Michel Labéguerie-ren lagunak

## MINTZO

**Quel a été l'apport de Michel Labéguerie à la langue et à la culture basques ?**

Déjà étudiant à Bordeaux, il créa un groupe de chanteurs et danseurs nommé Irrintzi ; plus tard à Paris, il jouait du txistu tandis que son frère jouait du tambourin. Dans les années 40, il fit un travail considérable de recherche de vieilles chansons basques qu'il accompagnait de commentaires avertis sur la musique et les textes. Il recueillit de nombreuses expressions populaires dans les fermes qu'il visitait en tant que médecin. Il se passionna pour le bertsularisme (art d'improviser sur un sujet donné) participant à de nombreux concours, soit en qualité de membre du jury, soit pour proposer les thèmes à traiter. Il fut de 1960 à 1980, président de la plus



ancienne association culturelle basque "Euskalzaleen biltzarra" dont le but était de défendre la langue et la culture basques. Mais son apport essentiel réside dans le répertoire de nombreux poèmes qu'il mettait lui-même en musique et interprétait, accompagné de sa guitare. Ses premières chansons à thème patriotique eurent un succès incroyable au Pays Basque sud qui subsistait l'oppression franquiste. Ses poèmes figurent parmi les plus belles pages de notre littérature basque.

Michel Labéguerie, homme sensible et passionné, est considéré, à juste titre, comme le père de la chanson basque moderne. On peut dire qu'il fit de la défense de la culture le combat de sa vie.

## Oraindantik gogoan atxiki behar :

"Kantuketan" erakusketaren estreinaldia :

**Otsailaren 3an, goizeko 11etan,**

Baionako Bonnat museoaren "Le carré" gelan.

**Inauguration de l'exposition itinérante "Kantuketan"**

**Le 3 février à 11 h**

à la Salle "Le Carré" du Musée Bonnat de Bayonne.

## Kantaldia

**"Erramun Martikorena"**

avec la participation du chœur mixte et des musiciens du Conservatoire national de région Bayonne-Côte-Basque :

**2001.eko otsailaren 3an / Le 3 février 2001 à 21 h**

Baionako antzokian / Au théâtre de Bayonne.

**Xehetasunak / Renseignements :**

Euskal kultur erakundea. Tél : 05 59 93 25 25

## ARGIBIDEAK INFOS PRATIQUES

### GAZTELUMA

#### literatur sorkuntzarako boltsa 2000

Mattin Megadenda, Euskalgintza Elkarlanean Fundazioaren eta Euskal kultur erakundearen laguntzarekin, iparraldeko idazle gazteak euskaraz idaztera lehiatzeko asmoz, Gazteluma, 1. Literatur Sorkuntzarako Boltsa sortu du.

Bi urteratik behin antolatuko da eta 20.000 liberako dirutza emanen zaio, epaimahaiki hautatuko duen eleberria edo ipuin bildumaren idazleari. Deialdian, edozeinek parte har dezake, 30 urtez petiko adina izanez gero. Gutunazala hetsia izanen da, kanpoko aldean idazlanaren izenburua izanen delarik eta barnean egilearen izena, helbidea, telefona eta nortasun agiriaren fotokopia. Epaimahaia, honela osatua izanen da : Itxaro Borda, Jon Casenave, Piarres Aintziri eta Gexan Lantziri, idazkari. Idazlanaren egitasmoa 2000ko abenduaren 22ko helbide honetara igorri beharko da : **Mattin Megadenda - Gazteluma Literatur Sorkuntzarako Boltsa - San Andres plaza 64100 Baiona Tél : 05 59 59 35 14 - Fax : 05 59 59 61 62**



#### GAZTE LEIHO : Bigarren maketa lehiaketa

Gazte leihok, taldeen ezagutarazteko asmoan, grabaketa eta kontzertuak segurtatuko ditu. Lehen ekitaldiaren arrakastak lagundurik, Gure Irratia irratiak "GAZTE LEIHO II. Maketa lehiaketa" antolatzen du, S.A.C.E.M., Euskal kultur erakundea, Agorila disketxea eta Baionako herriko etxeko B.I.J. bulegoaren laguntzarekin. Musika mota orotako maketak onartuak dira, eta hiru kantu aurkeztu beharko dira. Hautagai guzien zuzeneko emanaldi bat eskainiko du irratiak, eta irabazleari C.D. baten grabaketa eta kontzertu bat segurtatuko diote. Ondotik, kontzertu bat antolatua izanen da irabazleekin, Senperen 2001.eko otsailan. Maketak **abenduaren 30a aitzin** aurkeztu beharko dira. **Xehetasunak eta izen-emaitak : Gure irratia - B.P. 8452 - 64184 Baiona. Tél : 05 59 59 30 01.**

Euskal kultur erakundeak ekoiztu du "**Euskal Herria joan-jinean**" dokumental-bideoa **10 minutukoa**, lau hizkuntzetan egina (euskaraz, frantsesez, ingelesez eta gaztelaniaz). Oraindantik eskuratu behar duzuen : 59 liberetan.

**Manatzeko : Euskal kultur erakundea - Lota jauregia - 64480 Uztaritze**  
**Tél : 05 59 93 25 25 - Fax : 05 59 93 06 84 - E-mail : eke@wanadoo.fr**

#### Musée "CHILLIDA-LEKU"

*Le musée du sculpteur Eduardo Chillida vient d'ouvrir ses portes à Hernani. Vous pouvez le visiter tous les jours (sauf le mardi) de 10 h 30 à 14 h.* "Chillida-leku", Eduardo Chillida eskultorearen museoak atek ideki ditu Hernanin. Haren obrak ikus dezazkezu museoan bai eta ere inguruan daukan 12 hektaroko parkeen. Orduetgia : 10.30/14.00, egun guziz salbu asteartean. **Xehetasunak / Renseignements : Tel : 00 34 943 33 60 06**  
**E-mail : chillida@eduardo-chillida.com**  
**Site web : http://www.eduardo-chillida.com**

#### "Leihotik" N° 17

2000ko URRIA / OCTOBRE 2000

**Euskal kultur erakundearen berripapera**

**Bulletin d'information bimestriel de l'Institut culturel basque**  
I.S.S.N. : 1276 - 4779

**Directeur de la publication :** Pantxoa Etehegoien

**Rédaction et/ou traduction :** Maddalen Errotabehere

Jacques Larre, Frédéric Berrouet, Daniel Landart, Terexa Lekumberri

**Photos :** Jean-Claude Broca

Reproductions tirées des catalogues de Molia, Christiane Giraud et Bruno Aguerre. En médaille : Jesus Echevarria

**Maquette et impression :** Imp. André Larré - Bayonne

**EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA / INSTITUT CULTUREL BASQUE**

**Lota jauregia / Château Lota - 64480 UZTARITZE/USTARITZ**

**Tél. 05 59 93 25 25 - Fax 05 59 93 06 84**

**E-mail : eke@wanadoo.fr - http://www.eke.org**

Euskal kultura sustengatzen duen herriarteko sindikata eta euskal kultur elkarteak partaidea. Estadao, Pirinio Atlantiarretako departamenduko Kontseilu orokorra, Akitania eskualdeko Kontseilua sustengatzaile. Avec le partenariat du Syndicat intercommunal pour le soutien à la culture basque et celui des associations culturelles basques. Subventionné par l'État, le conseil général des Pyrénées-Atlantiques, le conseil régional d'Aquitaine.